

Planetagatik eta bertan bizi garen pertsona guztiengatik: etorkizuna erein dezagun.

Aurtengo kanpaina Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH) hauen inguruan izango da: **GIH 7: energia eskuragarria, fidagarria, iraunkorra eta modernoa bermatzea guztiontzat** eta **GIH 13: neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko**.

Bi helburu horien artean harreman nabarmenak daude: berotegi-efektuko emisioek eragindako klima-larrialdia geldiarazteko, energia garbi eta berriztagarrien aldeko apustua egin behar dugu. Horrela, planeta zaintzeko eta biziera guztiak, baita gizakiak ere, erabat garatzeko eszenatoki egokia lortuko dugu.

Gure erakundeentzat **oso garrantzitsua da gure planetak aurrean dituen bi arazo larrienetakoei amaiera ematea**: klima-aldaketari eta erregai fosilak neurri gabe erretzeari, oso kutsatzaileak baitira eta agortzera kondentatuta baitaude.

Oinarriak landatu ditzagun, etorkizuna erein dezagun



KEINU BAKOITZA KONTUAN HARTU

 **BIR-EBALUATU.** Zer balorek inspiratzen dute zure bizitza? Aldaketarako funtsezko balioak dira solidaritatea, erantzunkidetasuna, lankidetzak, ingurumenarekiko eta naturarekiko errespetua eta zaintza sustatzea.

 **BIR-KONTZEPTUALIZATU.** Nola deskribatuko zenuke zure bizimodua? Beharrezkoa da mundua ikusteko eta bertan bizitzeko dugun modua aldatzea, iraunkortasuna erdigunean jarrita. Kontzeptuak bir-definitzea: zer dira zuretzat aberastasuna eta pobrezia? Zer da zuretzat beharra? Uste duzu gutxiagorekin ondo (edo hobeto) bizi gintezkeela?

 **BERREGITURATU.** Lehenetsi itzazu beste era bateko ekonomiak, esaterako, ekonomia sozial eta solidarioa, oinarritzen dena berdintasunaren, gardentasunaren, elkarte-bizitzaren, lankidetzaren eta ingurumenarekiko errespetuaren printzipioetan. Bizitzaren erdigunean zaintzak jartzea, eta ez ekonomia.

 **BIR-LOKALIZATU.** Kontsumitu itzazu tokian tokiko eta garaian garaiko produktuak. Pentsatu globalki eta jardun tokian-tokian.

 **BIRBANATU.** Mundu guztiak bizitza duina izan dezan, beharrezkoa da aberastasunaren bidezko banaketa, bermatuz pertsona guztiek baliabide naturalak berdintasunez eskuratu ahal izatea.

 **MURRIZTU.** Adibidez, energia-iturri garbi eta berriztagarrien aldeko apustua eginez, kutsadura eta ingurumenaren gaineko eragina murrizteko, gure kontsumoa gure benetako beharizanetara egokituz. Modu arduratsuan kontsumitzen duzu? Behar duzuna erosten duzu?

 **BERRERABILI.** Pentsatu duzu inoiz produktu bat konpontzea, haren ordez berria erosi beharrean? Daukaguna zaindu, iraunkorra denaren alde egin, oraindik erabil daitekeena ez bota.

 **BIRZIKLATU.** Eta zuk birziklatzen duzu? Birziklatzearen bidez, hondakin askoren lehengaia berreskura dezakegu, errekurso berriak ateratzea saihestuz eta horien garraioari eta ekoizpenari lotutako energia galtzea ere.



1. Latouche, Serge. (2008) "L'aposta pel Decreixement", Ed. Icària

Pentsa ezazu... zeintzuk dira zure ustez klima-aldaketaren ondorioak?

Zer egin dezakezu zuk zure egunerokoan hori aldatzeko?

Imajinatzen duzu zein izan daitekeen zure aztarna ekologikoaren tamaina?

Aldaketa orain da, ez gaitezen honetara iritsi.



INSPIRATZAILE DIREN PERTSONAK



Wangari Muta Maathai (Kenya): Ingurugiroa babesteko eta emakumeen sustapenerako Gerriko Berdea Mugimenduaren bultzatzailea. Sortu zenetik, 50 milioi zuhaitz baino gehiago landatu dira Kenyan. 2004an Bakearen Nobel Saria jaso zuen.

Vandana Shiva (India): Herrien eskubideen defendatzailea, emakumeekin konprometitua eta, bereziki, Lurrarekin. Klima-aldaketa, desberdintasuna, bidegabekeria, gerrak eta gosetea amaituko dituen eraldaketa aldarrikatzen du.



Berta Isabel Cáceres (Honduras): Giza Eskubideen defendatzailea, Herri Erakunde Indigenen Kontseilu Zibikoaren (COPINH) sortzaileetako bat, Giza Eskubideen eta Lurraren aurkako korporazio handien aurkako kanpainak antolatzen dituen plataforma da hau. 2016an hil zuten bere lurraldea eta Lenca herriaren eskubideak defendatzeagatik.

Sonia Guajajara (Brasil): Ingurumen-aktibista eta Brasilgo Herri Indigenen Artikulazioaren koordinatzailea. Amazoniaren defendatzailea da, NBEko Giza Eskubideen Kontseiluan hitza du eta salaketak eraman ditu Klimaren Munduko Biltzarretara (COP) eta Europako Parlamentura.



Alberto Curamil (Txile): Lider maputxea eta ingurumenaren aldeko Goldman sariaren irabazlea. Mapuche Lurralde Aliantza erakundeko kidea, azken hamarkadan, Cautin ibaia babesteko ekintzak egin ditu, zenbait proiektu hidroelektrikoren aurrean, eta horregatik espetxeratua izan zen.

